



**EBAZPENA, 2019ko uztailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, oposizio-aldian izangaiek lortutako kalifikazio totalak argitara ematen da (Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan)**

---

2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen.

Aipatutako Aginduaren 7.5 oinarriaren laugarren paragrafoak zehazten duenarekin bat etorriz, izangaiek oposizio-aldian lortutako kalifikazio totalak argitara ematen dira.

Horrenbestez,

**EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan, oposizio-aldian izangaiek lortutako kalifikazio totalak (Hautaketa-prozedurak Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren).

**Bigarrena.-** Oposizio-aldiko kalifikazio totalen zerrenda ondorengo lekuan emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu behar dira):  
“2019ko EPE. Maisu-maistrak, kontserbatorioak eta HEO” → “Hautaketa-prozesuaren jarraipena” → kidegoa eta espezialitatea adierazi behar dira → “Emaizak” → “Oposizioko nota” – “Alfabetikoki” / “Puntuz”.

**Hirugarrena.-** Kalifikazio totalen aurka ez dago errekurtsua jartzerik; interesa duten izangaiek gorako errekurtsua jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.3.2 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 23an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

JON AGIRRE HUERGA